Eta, azken baten, nekazaritza jasagarria eta elikadura-subiranotasuna defendatzeak, premina etiko eta humanitarioari erantzuteaz gainera, etorkizun ekitatibo, arduratsua ingurumenagaz eta erresiliente baterako oinarriak be ezartzen ditu.

Ezinbestekoa da gure nekazaritza-politikak birplanteatzea, tokiko nekazariak babesteko dituan, elikagaien segurtasuna bermatuko dauen eta gure natura-ondarea zainduko dauen eredu baterantz. Landak ekoizten ez badau, uriak ez dau jaten. Horregaitik guztiagaitik, interpelazino hau egiten deusagu Bizkaiko Foru Aldundiari:

Zer neurri hartuko ditu Aldundiak familia-nekazaritza eta -abeltzaintza ustategi txikiak defendatzeko, euren ikusgarritasuna bultzatzeko? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Vaquero Moreno. En el turno de respuesta, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Atutxa Lejarreta.

La Sra **ATUTXA LEJARRETA** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

En el último mes, tal como ha mencionado, hemos vivido numerosas movilizaciones que se han llevado a cabo en toda Europa, en países como Francia, Bélgica, Alemania, Polonia, Italia, y España. Y como no podía ser de otra forma también lo han hecho en Bizkaia.

Bizkaian, protestak zezeilaren 2an hasi ziran, San Blas bezperan, ENBA eta EHNE sindikatuek sektorea alkarregaz mobilizatzeko deia egin ebenean. Traktoradak zezeilaren 9an egin ziran Bilbon, eta aldarrikapenetan funtsezko 3 gairi erantzun zehatza emotea eskatzen eben:

- Merkataritza libreko akordioen negoziazioak berehala etetea, adibidez MERCOSUR eta Zeelanda Berriagazko akordioa.



- Baserritarren prezioek produkzio-kostuak estali behar dabezala.
- Gaur eguneko Nekazaritza Politika Bateratua sinplifiketea.

Gai horreek foru-eskumenekoak dira? Ez, baina kezka hona ekarri gaitu.

Protestak Nekazaritza Politika Bateratura eta ingurumen-neurrietara, burokraziara eta merkataritza askeko akordioetara bideratu dira. Izan be, Europako merkaduan Europako ekoizleen baldintza eurak beteten ez dabezan produktuak sartzea ahalbidetzen dabe, desabantaila nabarmenean itxiz. Eta hori izan da protesta guztien sorrera.

Erantzuna zentratzeko, Nekazaritza Politika Bateratua zer dan eta horren bilakaera gogoratu gura neuke. Uste dodalako garrantzitsua dala sektorearen eskariak ondo ulertzea.

NPB Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zan, elikagai-eskasiaren ingurune ekonomiko baten. Horrek justifiketan dau politika interbentzionista eta produktibista ezartzea, gizartea elikagaiez horniduteko errazoizko prezioetan. Holan hasi zan merkadua arautzen: inportazioari muga-zergak eta gitxieneko prezio bermatuak ezarri jakozan. Horrek merkadu erabat babestua sortu eban, eta, beraz, ekoizpena handitu egin zan, eta horra gakoa. Ekoizpen-hazkunde horrek, sektorea modernizatzeagaz batera, irabaziak berrinbertiduz eta produktibidadea hobetuz, larregizko produkzioa ekarri eban. Elikagai-defizit batetik sobrakinerara pasau gara.

30 urte geroago, NPbk bere lehenengo erreforma handia jaso eban, produkzioaren hazkundeak, soberakinak egoteak eta merkadu libreko politikak eraginda. Beraz, mekanismo protekzionisten orde, ekoizpenari lotutako nekazariei zuzeneko ordainketak egin jakezan. Holan, gehiago ekoizten zanean, laguntza gehiago jaso eikezan.

2003an hasi zan hurrengo erreforma handia, eta horregaz trantsizino bat hasi zan, ekoizpenari lotutako laguntzetatik nekazarien errentarako laguntzetara edo ordainketa bakarera pasatuz. Beraz, ekoizten zanaren arabera ordaindu beharrean hektareako eta abelburuko ordaintzen zan, produkzio-eskualde desbardinak kontuan hartuta. Espainian 2006an hasi zan trantsizino hori. Sistema horren arabera, nekazariei laguntza-eskubideak esleitzen jakez, erreferentzia-aldi jakin baten jaso ebezan laguntzen arabera kalkulauta. Gatazkak saihesteko, ekoizpenagaitik jasotako laguntza kopuru bera bermatu zan, baina ordainketa bakarrean.

Azkenengo hamarkada bietan, klima-aldaketeagaz, biodibersidadeagaz, energiagaz, uraren kudeaketeagaz eta digitalizazioagaz lotutako erronka barriak sartu dira. Azkenengo erreforma 2023ko urtarrilean egin zan, eta, besteak beste, ordainketa-eskubideak batez besteko nazional baterantz bateratzea bilatzen dau. Era berean, jarduera jasangarriak hartzeko borondatezko konpromisoak diran proiektuak jasoten dauz. Hartzaile guztiek ongarritze jasangarriari, lurzoruen kudeaketari, urari, hezeguneen kontserbazinoari eta abarri buruzko zenbait araudi betetera behartzen dauen baldintza indartua. Edo labrantzako fase edo esku-hartze bakotxa tresna digital baten jasotera behartzen dauen koadernu elektronikoaren aplikazioa. Logikoa da pentsetea emoten diran laguntzek jarraipena eta kontrola izan behar dabela. Halan be, baserritarrek adierazo dabe denpora gehiago emoten dabela praktika bakotxa apuntetan, ikuskapenetan laguntzen, laguntzak justifiketan edo dokumentu amaibakoak beteten, lurra lantzen baino.

NPB herrialde bakotxean apliketan da Plan Estrategikoaren bidez. Plan horretan, ezarritako helburuak beteteko beharrezkoak diran esku-hartzeak jasoten dira. Eta hona hemen gai garrantzitsuenetako bat. Aurreko programa-aldietan, autonomia bakotxak bere plan estrategikoa eukan, eskualde bakotxeko sektorearen errealdadeagaz bat etozan esku-hartzeak





jasoteko. Baina azken aldi honetan nekazaritza politika zentralizatu egin da, eta ez daukagu Plan Estrategikorik.

Azken aldi honetako aldaketek ingurumen-konpromiso barriak, kontrol gehiago, sistema informatikoetara egokitzea eta euron erabilera aldatzea dakarre, ekoerregimenetara eta baldintzazkotasun indartura egokitzeko. Baina hori guztia Plan Estrategiko nagusiaren aterki komun baten pean, eskualde bakotxaren berezitasunei jaramonik egin barik. Eta zuk esan dozunez, Euskadin ez daukagu makroindustriarik, produktino txikiak daukaguz. Eta sistema gaiztoa izan daiteke, onuradun askoren nekazaritzako diru-sarreraren %30 NPBtik datorrelako. Gainera, ezin dogu ahaztu azken erreforma horren aurretik COVIDeko urte bi, sektore batzuek eragin larria jasota, Ukrainako gerrea eta prezioen igoerea, eta sektorea egoera kritikoan jarten dauen lehorrea izan dirala.

Horregaitik guztiagaitik, sektoreak egiten deuskuzan eskariak ulertu eta eurakaz bat egin besterik ezin dot egin. Baina aurreko legegintzaldietan egin dogun moduan egiten dogu, sektoreari entzunez eta lagunduz lagundu daikgun horretan, gure eskumenei erantzunez. Eta lankidetzan hori COVIDerako laguntza espezifikokoak, Ukraina esparruaren ezohiko laguntzagaz, Next Generation laguntzakaz eta talka-plan bat martxan jarrita gauzatu da.

2021aren amaieran, dirulaguntzei buruzko ezohiko dekretu bat argitaratu genduan COVID markoaren barruan, 1,1 milioi euroko zuzkiduragaz, artean sektore kaltetuak geunkazalako, adibidez sagardoa eta txakolina, eta 2022an beste dekretu bat atera genduan Ukrainaren esparruan, 1,2 milioi eurokoa, ofizioz banatzen doguna, laguntza horreek guztiak izapidetu behar izan barik.

Azken laguntza berezi hori sektoreagaz beragaz eta sektorerako adostutako talka-plan baten barruan kokatu zan. Plan horrek 10 neurri zehatz jaso ebazan, sektoreak berak helduarazo euskuzan kezka eta eskaerei erantzuteko.

Sektoretik bertatik adierazi euskuen. 10 neurri, besteak beste honeek jasoten dabezanak: sektorea ikusarazoteko ekintzak, gizarteari emondako zerbitzua, berregituraketa- edo modernizazio-planak eta basa-faunaren kalteak prebeniduteko neurriak. Horreek guztiek 2 milioi euroko aurrekontua izan eben, aparteko laguntzak barne. Eta konpromisoa hartu genduan sektoreagaz alkarrizketan jarraitzeko, epe luzerako arazo estrukturalagoi eta lan-arazoei aurre egiteko.

Urte amaieran, sektoreagaz eta sindikatuakaz batera, talka-planetik eratorritako bigarren fasea definitu genduan. Plan hori gure baserritarrak kezkatzen eta okupetan dabezan lau arlotan zedarritzen da: belaunaldi-erreleboa, nekazaritza-lurren funtsa, ustiatetik albaitaria eta abeltzaintza estensiboa. Prozesu horretan gagoz gaur egun.

Lehenengo batzarrak urtarilean egin ziran, eta sektoreko 120 personak baino gehiagok hartu dabe parte: baserritarrek, sindikatuak, garapen agentziek, albaitariak, prestakuntza zentroak, alkargo profesionalek, ikerketa zentroak... Prozesuaren amaieran, adostasunez, ezin bestela izan, beharrezkotzat jotzen diran lan-ildoak abiarazoko doguz. Barriro be eskerrak emoten deusdaz prozesu honetan parte hartu daben personak guztiei.

Mobilizazioen aurreko astean, hain zuzen be, 3 saio egin ziran sektoreagaz, kezkatzen dabezan gai horreek jorrazteko.

Autonomia-erkidegoetako administrazioez ganera, Jaurlaritza eta Aldundiak batu gara sektoreagaz lankidetzan jarduteko eta laguntzeko konpromisoa hartuko daben ekintzen dekalogo bat ezartzeko, hasiera baten esan dodan lez, funtsezko sektorea dalako. Horreetako bakotxa aitatu dot:



1. Erkidegoko araudia malgutzea.
2. Laguntzak kudeatzen eta izapidetzen laguntzea.
3. Elikatze-katearen legea garatzea.
4. Nekazaritza-lurren erabilera zaintzea eta sustatzea.
5. Ingurumen-politikak nekazaritza-jardueragaz sentsibilizatzea.
6. Belaunaldi-erleboaren aldeko apustua egitea eta emakumeek sektorean presentzia/lidergo handiagoa izatea.
7. Sektorearen beharretara egokitutako laguntza-neurriak.
8. Nekazaritzako aseguruak indartzea.
9. Barrikuntza eta teknologiaren erabilera sustatzea nekazaritza-sektorean.
10. Lehen sektorea ahalduntzea.

Bizkaiko sektoreak batzar edegia deitu eban barriro, sektorearen beharrak eta eskariak jasoteko, eta laster iragarriko deuskuzuela uste dot. Oindino ez dozue egin.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Atutxa Lejarreta. En el turno de respuesta tiene la palabra el señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Eskumenak, ez eskumenan, laster ikusi nebenez Tapia andreak 3 aldundiakaz egindako batzarraren argazkia, beharbada zerikusia daukagu honetan. Baina orain arte, gure ikuspuntutik, traktorada baten estimuluaren aurrean estimulu-erantzun estrategia bat ikusi dogu, danok mobilizetan gara, bizitza osoan existidun dan arazo bati erantzuten deusagu, baina ez deusagu arretarik emon hain esanguratsuak izan diran mobilizazio horreek agertu diran arte. Zuk ondo dakizunez, estrategia horren arazoa da, emoten dogun erantzuna zuzena bada, sari bat izango dogula, eta, bestela, zigorra. Gure ikuspegitik, erantzuna ez da soilik estimulu horren presentziaren aurrean emon behar, hau da, kexen aurrean; aitzitik, horren aurretik egozan aldagaiak kontuan hartuta, detekzino-mekanismoek alde aurretik jardunarazo behar euskuen eta, holan, arazoa sortu ez.

Orain esaten deuskuzue baldintza barik babesten dozuela lehenengo sektorea eta proposamen asko aurkeztu dozuezala, baina diru-hornidura zehatzik barik, edo, nik behintzat ez dot ikusi, gure nekazariei laguntzeko, eta besterik barik, esan, zorionak. Proposamen horreen artean batzuk, Familia Nekazaritzaren Lege barriarena, adibidez, ezin izango da gauzatu; baina badira beste batzuk: elikatze-katearen prezioko ikuskapenak indartzea, belaunaldi erreleborako programak, zuk esan dozun moduan, zerga-pizgarrien promesak edo ingurumen-politikak eta klima-aldaketaren aurkakoak sektorearen interesakaz harmonizatea. Kontau gugaz hori egiteko. Hemen prest egongo gara mozino deribadu bat ekarteko, sektore hori hobetzen lagunduko daben jarduera-erispideak adosten lagunduko deuskuna, zeozelan.



Era berean, sektoreagaz bilerak egingo dituzuela agindu dozue, eta, zuk ondo esan dozun moduan, egin egin dituzu. Ederto, jarraitu holan, egiten dozuen guztian lagunduko deusuegu. Eskatzen deusuedana da, eta hasieran esan dodana apur bat kontuan hartuta, euste-ariketa bat egin daizuela, ez daizuela justifikau eskumenik ez dagoala-ta egon dan gelditasun hori, batez be azken 10 urteotan nekazaritza-politiken diseinuan eta kudeaketan izan daben birzentralizazioagaitik. Hau da, Tapia andreak be esaten eban hori. Eskatzen deusudana da, gaur egun egin daikegunaren arabera, egin daigula, batez be, orain elikatze-kateaz eta prezioen kontrolaz berba egiten dozelako. Baina hori, gure Taldean behintzat, traktoradea baino lehen errebindikau dogu denpora askoan, beraz, ondo etorri.

Gure aldetik, besterik barik, esan gura deusut Madrilen erregistrau dogula lege-proposamen bat elikatze-kate hori indartzeko, oinarritzko 3 elementutan oinarrituta, landa-eremuko mobilizazioei erantzuteko:

Lehenengo eta behin, Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentziak elikadura merkaturatzen daben enpresek oinarritzko elikagaien prezioa murrizteko dabezan irabazi-marjinen muga bat egitea proponiduten dogu.

Bigarren, elikagaien kostuei eta prezioei buruzko txosten objektiboak egitea proponiduten dogu, eta hileroko txosten sektorialak argitaratzea eta eguneratzea, Espainian ekotzitako elikagaien batez besteko produktzio-kostu efektiboa modu objektibo eta gardenean jasoteko.

Eta hirugarren, elikagaien kontratazioaren arloko arau-hauste arinak eta larriak aldatzea proponiduten dogu, zenbatekoak 3gaz biderkatuz.

Azken baten, eta amaitzeko, gure jarrera nekazaritza jasangarria eta ingurumenaren kontserbazioagaz konprometitua defendatzea da, eta azpimarratzen dogu neurri zehatzen garrantzia elikatze-katean justizia bermatzeko, belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko eta nekazaritza-testuinguru baten biodibersidadea babesteko. Bidean bat egingo dogu, ziur. Nik espero dot ez deuskuzuela tranparik egingo, eta hori jazo da, adibidez, Europako Parlamentuan, Natura Lehengoratzeko Legeagaz, gitxienez kaltetutako habitaten %20 leheneratu gura ebazan lege horregaz. Ba ez deusku konfiantza handirik sortzen une honetan, espero daigun holan ez jarraitzea.

Eta azken gauza, ulertzen ez doguna otsoaren gaia da. Hau da, oso tristea da ikustea lehenengo sektorearen burrukak biodibersidadearen babesaren aurka joan behar dauela. Ez dakit, presino logiko batzuen aurrean amore emoteak ez leuke eskari guztiak onartzeko balio behar, besteak beste, abeltzaintza jasangarriaz berba egiteak ez dauelako esan gura otsoak hiltzen itxi behar dozunik. Ez dogu saiatu behar zarata handia egiten dauen sektore bat asebetetzen, zarata handia eraginez, eta beharbada hain esanguratsua ez dan beste bat eraginez. Egia esan, otsoa egoera larrian dago Euskadin. Talde ekologista kalera ateratea gura ez badogu, entzun egin beharko deusagu okerreko erabagiak hartu aurretik.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno. En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora Atutxa Lejarreta, representante de la Diputación.

La Sra **ATUTXA LEJARRETA** andreak: Gracias señora Presidenta.



Gelditasuna edo erreakzino-estimulua aitatu dozuz. Uste dot ez dala gure kasua. Izan be, Euskadin Elikatze Katearen Euskal Behatoki bat dago, eta hori ez dago beste erkidegoetan; beraz, uste dot gauzak egiten dirala. Eta nire lehenengo agerraldian azaldu dodanez, sektoreagaz alkarlanean jarraitzen dogu, sektorearen arazo zehatzei erantzuteko. Ezin deutsegu gure eskumenekoak ez diran gaiei erantzun, ondo esan dozunez, Europan neurri jakin batzuk eskatu beharko doguz, baina, jakina, sektoreari entzun eta lagundu egiten deusagu.

Txoke-plan honetan nekazariak egin deuskuen eskaeretako bat nekazari mistoei laguntzak zabaltzea izan da, eta holan egin dogu.

Beste kontu bat zan inbersinorako laguntzek portzentaje handiagoak aurreikustea, halan egin dogu.

Edo emakume nekazarien amatasun-bajak zabaltzea. Horretan gabilz.

Edo EHEk eragindako animaliakaitik kalte-ordainak emotea, halan egin dogu.

Adibide batzuk dira. Lan-prozesu edegi baten gagoz, eta ildo horretatik jarraituko dogu, adostasun zabala eta neurri eraginkorrak eta zuzenak gura doguzalako hareek pairatzen dabezan arazoentzat.

Eta amaitu baino lehen, gogoeta bat be egin nahiko neuke. Izan be, nire ustez, sektoreak egunotan egin dauzan mobilizazioak gizarteari egindako deia eta sektorearen ikusgarritasun kontua be badira. Eta arreta-dei hori gu guztioi, kontsumitzaile guztioi, izan dan arren, euren lana aintzatetsi daigun, ez daigun ahaztu pandemian funtsezko sektorea izan zirala eta gure despentsak hornidu ebezala. *No farmers, no food*, inoen traktoreetan eroiezan karteletako batzuek. Nekazaririk ez badago, ez dogu janaririk izango. Eta, horregaitik, pozten naz, nolabait, protesta formatu baten bada be, fokua lehenengo sektorean jartzeagaitik.

Bizkaiko nekazaritzan ustiategi txikerrak eta familiarrak dagoz, eta aurre egiten deutsee prezio-aldaketei, krisi klimatikoari eta lehorteei. Testuinguru horretan, nik uste dot gizarteari be dei hori egin behar jakola, ahal dogun moduan, baktotxak dauzan aukeretatik, tokiko produktua kontsumiduteko eta, holan, lehen sektoreari mesede egiteko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Atutxa Lejarreta. Punto 3 del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.12/E/2024/0000367](#))

**Autor:** Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Servicios inmediatos y especializados que deben ofrecerse a las mujeres víctimas de violencia machista

**Documento Principal:**  
([R.E.12/E/2024/0000367](#))

3.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([12/E/2024/0000367SE](#))

**Egilea:** Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eskeini beharreko berehalako berariazko zerbitzuak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000367SE](#))  
**Espedientea:** ([12/B/18/0000832](#))



**Expediente:** [\(12/B/18/0000832\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto tiene la palabra la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias señora Presidenta. Buenos días.

El objetivo de esta interpelación no es poner de manifiesto que en el Servicio de Mujer y Familia de la Diputación Foral de Bizkaia, durante 15 años, 3 profesionales con amplia experiencia en violencia machista, 3 psicólogas, hayan perdido su empleo. Estos profesionales, si se lleva a cabo la reestructuración anunciada, serán recolocados por la entidad en otras áreas o servicios.

Ante esta decisión, lo que tenemos claro es que este movimiento interno, un desmantelamiento de todo un servicio para mujeres que sufren violencia machista, responde a una desmantelación del servicio. Por lo tanto, con estos cambios de puesto de trabajo se perderá la experiencia y el conocimiento de estos profesionales dedicados a este tema, pero sobre todo las perdedoras serán esas mujeres que sufren la violencia machista en nuestro territorio.

¿Y por qué utilizamos el término disolución o desmantelamiento? Conviene hacer un recorrido histórico para entender de dónde venimos y a dónde vamos.

o En 1987 se creó el servicio de mujer y familia con dos psicólogas que atendían directamente a las mujeres.

o 1994: debido a una demanda que crecía exponencialmente (cuando ni siquiera existía la ley integral de violencia de género), se constituyó el servicio de atención psicológica de la DFB, que fue gestionado por Zutitu hasta 2023.

o 2002: Se crea un programa de madres monoparentales jóvenes para organizar su vida familiar, formativa, laboral y social con un equipo interdisciplinar: <https://www.itakaescolapios.org/que-hacemos/hogares/independiain-bilbao/>

o En 2006 esta Diputación creó un novedoso Programa de Intervención en Violencia contra las Mujeres para ayudar a las mujeres que convivían con sus agresores a salir de la situación de violencia. Este programa contaba con un equipo educativo y un abogado formado en la materia, en el que ayudaban a dar los pasos necesarios para salir de la situación de violencia, estas mujeres que, como se ha dicho, aún seguían conviviendo con el agresor:

o Mediante una audición activa

o Ayudando a tomar conciencia de la situación de maltrato,

o decidir qué hacer,

o Ayudando a construir su Plan de Vida

o Colaborando en la adopción de medidas de protección

o Enseñando a abordar el tema con los hijos, anticipándose a posibles futuros agresores (ayudando a descartar el modelo de paternaje tóxico).



o Una vez llegado el momento y, en su caso, acompañando a la Denuncia, acompañamiento a juicios, etc.

Eta BPGa, hain zuzen be, programa aitzindaria zan, Estaduko beste erkidego batzuen artean erreferente moduan ezagutzen dan punta-puntako programea, eta emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako politika eraginkorren abangoardian jarten ginduzana, gizarte-klasea, administrazio-egoera, kulturea kontuan hartu barik, eta sartzeko atea zuzena eta azkarra zan, Aldundiko Emakume eta Familia Zerbitzuaren bitartez.

2012an, Bizkaiko Foru Aldundiak, indarkeria matxistak jasaten dituen lurraldeko emakume guztiei arreteta emoteaz arduratuta, Tartekari Sarea sortu eban, gizarte-laguntzako agenteen sarea. Sare horren helburu nagusia Bizkaiko alkarteetako emakume boluntarioak trebatzea zan, euren inguruneetan genero-indarkeriako kasuak igarri ahal izateko; lagunen artean, familiaren, auzokoen eta alkarte horreetara joaten ziran emakumeen artean, eta zubi lana egitea emakumeen eta Aldundiaren baliabide espezializauen artean, emakume guztiak artatu ahal izateko.

2015ean, Txikiak Zerbitzua sortu zan, genero-indarkeriaren biktima diran adinbakoentzat Familiar Esku Hartzeko Foru Zerbitzua. Baliabide horreetara guztietara sartzeko atea beti zan zuzena, Emakume eta Familia Zerbitzuaren bidez. Zerbitzu horretan, psikologoen eta langileek alkarrizketa bat egiten eben, emakumeon bizi-historia jasoten eben, euren eskaera espezifikoki erantzuten eutsien, eta beren beharretara, beren eta seme-alaben beharretara ondoen egokitzen zan baliabidea eskaintzen eutseen. Eta sarbide zuzeneko ate horregaz, emakumeek erreparazioa aurkitzen eben, erreparazioa indarkeria matxistako egoera kontetan eben lehenengo unetik, gaien espezializatuak profesionalek artatzen ebezalako, eroso sentiarazten ebezalako, esperientzia traumatikoa kontetako eta egoera baloratu ahal izateko nasai. Hori guztia euren erritmoak kontuan hartuta eta emakume horreek indarkeriaren zikloaren zein unetan egozan ulertuta. Funtsezko kontua da, helburua bada emakumeon indarkeria arrakastaz amaitzea.

Eta horretarako, jakina, gaiari buruzko prestakuntza espezifikoa behar da. Orain dala urte batzuk arte, programak eta proiektuak diseinetan ziranean, indarkeria matxistaren ikuspegitik egiten zan, bardintasun-politikatik, indarkeria jasan eben emakume guztiengan pentsauz, eta ez emakume horreen zati espezifikoki baten. Argi-ilun eta guzti, honaino dana ondo, honaino dana ondo. Borondate politikoa ikusten zan indarkeria horreek pairatzen ebezan emakumeei, guztiei, gure amei, gure etxeandrei, gure ahiztei, gure lehengusinei, gure lagunei, gure alabei, hemen egozanetako edozeini, kasu egiteko.

Baina, 2022tik aurrera, seguruen urte batzuk lehenago egongo zan hori guztia egosten, paradigma-aldaketa ikusten da, gure lurraldean indarkeria jasaten daben emakume horreek guztiak zelan artatuko diran azaltzen dauen planteamentu barri bat. Barruko berregituraketa hori apurka-apurka egosten doa, eta emaitzek asko kezkatzen gaitue, eta horreek dira gaur Laespada andrea interpelatzera ekarri gaituenak. Zuek erabagi dozue orain tratatu txarrak jasaten dabezan emakumeak baliabide komunitarioetara sartzeko atea, hau da, arreta integrala eta diziplinartekoa eta ostatu-baliabideena, oinarritzko gizarte-zerbitzuak izatea, eta erabagi dozue emakumeen eta familien zerbitzura zuzenean sartzea blokeatzea.

Zuzeneko ondorioa da berehalako sarrera desagertu egiten dala, eta emakumeak ja ez dauzala baliabide espezializatu batek artatzen, indarkeriaren historia lehen aldiz kontetan dabenetik. Eta ez dakargu sekreturik, Laespada andrea, andra horreetako asko epaituta sentiduten dirala, ez dirala ulertuak sentiduten dirala esaten badogu, eta, horren ondorioz, kontetako izan daben kemena euren kontra doa, eta horrek posible egiten dau isiltzea eta euren erasotzaileakaz itzultzea. Kasurik onenean, emakumeok oinarritzko gizarte zerbitzuetara jo eta ibilbidea jarraitzen badabe, lehenengo tresna bat aplikatu jake, jasaten



daben babesbakotasun arriskua baloretako, eta horren emoitzea arrisku larrikoa bada, Aldundiko emakume eta familia zerbitzura pasauko da.

Gaur arte, ibilbide horrek 8-9 hilebete behar ditu, eta hor, emakume eta familia zerbitzuan, hemendik aurrera bigarrenaz aztertuko dira, Aldundi honek sortu dauen balorazino-tresna barriagaz, lortutako emaitza babes falta oso larria edo larria dan jakiteko. Hau da, kasurik onenean, erakunde gisa emakume horreek guztiak birbiktimizatzen gabiliz.

Lo peor es que con este nuevo instrumento de medición de la desprotección, si el resultado no arroja un alto o muy alto grado de desprotección, después de todo este recorrido y tras contar su historia una y otra vez, los servicios especializados de esta Diputación que prestan apoyo socio-educativo integral no les atenderán.

En resumen, esta herramienta de medición de la desprotección es la que determina que la DFB atenderá exclusivamente a las mujeres maltratadas si tras el paso de la herramienta se deduce que padecen una situación de desprotección grave.

Y cuando hablamos de desprotección grave hablamos de mujeres sin alojamiento o sin hogar. Es decir, si, por ejemplo, la mujer maltratada convive con su agresor y solicita ayuda integral, no proporcionará el nivel de desprotección necesario para recibir una asistencia integral como mujer víctima de violencia de género.

Ikusten da, gainera, tresna hori ikuspegi guztiz maskulino batetik pentsauta dagoala, parametro erabagigarri bat kalean egotea dalako. Genero-perspektiba batek pentsarazoko leuskigu emakumeen perzeptzioa, okerra bada be, kalea etxea baino askoz be espazio ez-segurua dala, erasotzaileagaz bizi arren. Gehiago oindino benetan jasaten dabilenaren kontzientziarik ez daukanean. Horregaitik, gatxa be gatxa da erasotzailea etxean euki arren etxetik alde egiten daben emakumeak topatzea. Eta datu enpirikoa da feminizidio gehienak etxean egiten dirala. Eta erraza da ondorio moduan ateratea tresna horrek ez deusola erantzuten indarkeria matxistak pairatzen dabezan emakumeen benetako beharrari, ez daukalako, besteak beste, genero-ikuspegirik. Eta orduan geure buruari galdetzen deusagu zergaitik ez dan existiduten 2022tik, indarkerian espezializautako programea, erasotzaileakaz bizi ziran emakumeak artatzen zituana? Zergaitik kendu dozue?

Eta amaitzeko, esamoldea erabilten ixten badeustazu, ez etorri motorra saltzera, programa hori Zerizan bihurtu zala-ta.

Eta hor itxiko dot, bigarren txandan jarraituko dot.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Iardía Olangua. En el turno de respuesta, tiene la palabra, la representante de la Diputación señora Laespada.

La Sra. **LAESPADA MARTINEZ** andreak: Gracias interpelazinoagaitik. Izan be, nasaitasunez eta eztabaida sakonez azaltzen ixten deustalako horren inguruan dabilzan eta zure esku-hartzearen oinarri diran falazia ugariak; beraz, eskertzen deusut, nasai eta sakon berba egiteko aukera emongo deuskulako, eta eztabaida kokatu behar dala uste dodan lekutik eztabaidatu ahal izango dogulako.

Nire berbaldia 2021ean, 2021eko zemendiaren 24an, osoko bilkura baten egin zeunstan galderea gogoratuz hasiko dot. Eta oso modu egokian egin zenduan, oso modu



pedagogikoan, eta biok bat egin genduan, lankidetzan biok alkarregaz egon behar genduala, eta laguntza eta koordinazioa eskaini behar genduzala, emakumeak prozesu horreetan bakarrik sentidu ez eitezan. Hortik abietan naz. Eta hortik abietan naz, galdera horrek gogoeta eragin eustalako zelan egin eta berregituratu geinkezan zerbitzuak emakumeek konpainia gehiago eta jarraipen hobea euki eien.

Gaur, ostera, beste elementu bat sartu da, errazoa daukazu, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeen babes falta baloretako tresnearen elementua. Uste dot zehaztaperen batzuk egin behar dirala testuinguruan kokatzeko eta pedagogia politikoa eginez, 51 batzarkideei apliketan gabilzana zuzena dala zalantzarik euki ez daien. Ilardia andrea, indarkeria matxistaren arloko gizarte-zerbitzuetan esku hartzen dogu, gizarte-zerbitzuek, Gizarte Zerbitzuen Legeak, hori egiteko agintzen deuskulako. Eta Gizarte Zerbitzuen Legeak 1996tik agintzen deusku hori egiteko, lehen mailako gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzu espezializatuak ezartzen ditu eta. 2008ko 12koa, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko 12ko Legea, askoz gehiago hurreraten da, eta tratu txarrak aitatzen ditu, emakumeek aurre egin beharreko indarkeria. Eta 2015eko Kartera Dekretuak zerbitzuak zelakoak izan behar daben azaldu eta ezartzen dau, eta oso argi azaltzen dau gizarte-zerbitzuetara sartzeko atea udaletako gizarte-zerbitzuen bidez egiten dala. Ez da diputadu honen asmakuntza, Ilardia andrea, Gizarte Zerbitzuen Legea deitzen dan lege-esparru bat dago, Aldundiaren gizarte-zerbitzuetarako atea hasiera baten udal-zerbitzuek marketan dabena eta lege-esparrua errespetau gura dot. Beraz, gizarte-zerbitzuen sarrerako atea udalarena da.

Aldundira bialtzen dabez kasuak, baloretako eta esku-hartze espezializaua egiteko, eskatutako intensidadeagaitik udalak eta udalerririk gairiditzen dabezan kasuetan. Aldundiak esku-hartze osoa balorau, diagnostikoa egin eta antolatu behar dau. Prozedura horren bidez, kasu guztietan erantzuten jake unibersaltasun-erispideei, herritarrei bardintasunean arreta emoteko erispideei eta homogeneousunean prestetako erispideei, interpretazino subjektiborik barik, interpretazino subjektiborik egon ez daiten. Arartekoak 2016an adierazo eban udal- eta foru-arkitektura desbardinaren arteko lankidetzeta eta osogarritasuna behar-beharrezkoak zirala, eta tresnak aukera emon behar deusku arkitekturak funtzionau daian, eta jakin daigun zein kasu dagozan Aldundiaren menpe eta zein kasu dagozan udalen menpe, eta zein dan esku-hartzerik onena kasuan-kasuan.

Eta hor dator instrumentuaren garrantzia. Tresna horrek, haurren babes faltan, desgaitasunean, menpekotasunean edo bazterketan jazoten dan lez, balorazino-tresnak daukaz beste eremu batzuetan, eta, ostera, ez geunkan indarkeria matxistak eragindako babes faltaren arloan, ez geunkan neurketa-tresnarik. Helburu horregaz hasi eta ausartu ginan tresna bat egiten, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen eskutik egin genduan, beti be 353/2013 Dekretuan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak baldintza batzuetan ezartzen dauen horretan. Tresnak ikuspegi feminista interseksionala dauka. Tresnak biktimak benetan ikaratzen dabezan egoerak bilatzen dauz, eta egoera konprometiduak bilatzen dauz, ezinbestekoak, kasurako personalak, komunitarioa, ondoizate materiala, etxebizitzakoa, andra baten osasuneko. Tresna hori kasu errealakaz pilotau zan tamaina eta ordezkariak desbardinako Bizkaiko 11 udalerritan eta foru gizarte zerbitzuetako 7 gizarte langilek, eta 2022an ondorioak atera ebezan. Modulatu eta txertatu egin doguz.

Tresnak indarkeria matxistaren kontzeptualizazino zabala hartzen dau, eta paradigma feminista gorpuzten dau. Genero ikuspegia eta haren adierazleak txertatzen dauz. Zuk ezetz esan arren, tresna eta eskuliburua bialtzeko dokumentazino eskaera bat dozu. Mesedez, berba egin aurretik tresna eta eskuliburua irakurteko eskatzen deusut, eta gero, gura badozu, horri buruz berba egiten jarraituko dogu. 62 adierazle daukaz. Jasandako indarkeria matxistaren inpaktua, indarkeriaren biktima dan emakumearen segurtasuna eta babes bere bizi-testuinguruetan; norberaren babeserako, autogobernurako eta autonomia personalerako egoera eta gaitasuna; edo indarkeriaren iraunkortasuna eta barriro pairatzeko probabilidadea. Eta





tresnak gizarte-diagnostikoaren dimentsino bat dauka, eta udal-zerbitzuek aplikau leikie, modu sintetikoan. Holan, zehaztu ahal izango dabe eurek emon leioen arretea edo Aldundira bideratu behar daben, eta Aldundian modu zabalean dago, haren garrantzi zientifikoaz jaubetuta, jakin deien erabilerea eskatu eban Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiak eskaera bat egin dauela. Egin genduana tresna ondare bihurtzea izan zan, geuretu, Aldundiaren tresna propio bihurtu, eta, hortik aurrera, laga egin daiteke. Eta Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiak berak tresna horren balio zientifikoa balioetsi dau.

Tresna operatibo izanda, balorau geinke eta 2.1 fitxa baloretako eta garatzeko zerbitzu bat behar dot, guri jagokuna. Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen dau podere publikoen eta administrazioen betebeharra, hain zuzen be, balorazino diagnostikoa dala, eta, beraz, hori bai dala Aldundiaren eskumen propioa. Eta zerbitzu horri jagokozan prestazinoak jarraipenaren balorazinoagatik eta orientazinoagatik datoz; balio horreek Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte-langilearen funtzino bakar eta zorrotzen eskuliburuaren barruan sartzen dira. Gizarte-langilearen eginkizunen eskuliburuan dagoz eginkizunok.

Interpelazinoa egin deustazu, idatziz diagnostiko soziala egiten daben profesinonaren tipologiari eta profilari buruz. Maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuak arautzen dau hori be, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialak 3. artikuluan ezartzen dauenez, diagnostikoa egin beharko da gizarte-langileak, hasierako balorazinoa egin ondoren, diagnostikoa egin behar dala uste badau. Hau da, balorazinoa nork egin behar dauen ezartzen dau. Beraz, balorazinoa egitea, gizarte-langileak egingo dau, etxebizitza-, polizia- eta osasun-azpisistema guztiei buruzko informazinoa hartzen dau, beharrezkoak diran guztiei buruzkoa, gure zerbitzuei buruzkoa, eta hortik abiauta egiten dau diagnostikoa. Balorazino-zerbitzu barri horrek horretarako konpromisoa hartu daben gizarte-langile kopuru nahikoa eskatzen dau, 2021ean azpimarratzen zenduan zeozer daukagulako jokoan, hau da, isolamentuaren, sarerik ezaren eta bidean galtzen joan diran biktimen kontrako estrategiak garatzea. Eta horretan gagoz, biktimak lagunduta egon daitezcan, eta gizarte-langileak jarraitzen daben kasuko langileak izan daitezcan.

Esan deustazu, eta hemen dator gauzarik harrigarrietako bat, ea zerbitzu espezializaua behar daben emakume guztiei aplikau jaken galdetu dozu. Ez. Ez dakit nondik atera dozun, jakina ez, ez jake guztiei aplikauko, itxidazu azaltzen. Balorazino-tresna oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik datozenei bakarrik apliketan jake, prozedura arruntaren bidez datozenei bakarrik, hau da, oinarritzko gizarte-zerbitzuen bidez. Prozedura arruntak esan gura dau prozedura arruntaren barruan sartzen dirala, gizarte-zerbitzuetan eskaria egiten danean eta gure zerbitzuetara sartu eta heltzen danean. Arreta zuzeneko zerbitzuak? Ez, zuk aitatu deustazuzan guztiak zuzeneko arretako zerbitzuak dira, zuzeneko arretako zerbitzuak ez dabe balorazino-tresnarik behar, baina hori ez dau esaten diputadu honek, ez nabil ezer desegiten. Legeak be esaten dau, Gizarte Zerbitzuen Legeak be esaten dau, ez dira balorazino-tresnatik pasauko.

Begira, Ilardia andrea, 3.000 biktima inguru artatzen doguz urtean zehar. 2.500 balorazino-tresnarik barik igaroten dira; izan be, zuzeneko arretako zerbitzuetara joaten dira: laguntza soziojuridikoko zerbitzuetara, arreta integraleko zerbitzuetara, sexu-indarkeriaren zerbitzu inaugurau barrira, tratu txarren eta sexu-erasoen egoeren arreta psikosozialeko zerbitzura, eta Txikiak zerbitzura, adinbakoenera. Horreek guztiak sarbide zuzenekoak dira. Danak. Eta holan izaten jarraituko dau.

Esnatu zerbitzuak, laguntza psikologikoko zerbitzuak, 24 psikologo espezializatu daukaz, eta 24 andra daukaguz arreta psikologikorako Esnatu zerbitzuez arduratzeko. Datu bat emongo deustut, hazkundera ikusi daizun eta denpora guztian gure errealidadera, eskariaren neurrira zelán egokitzen ahalegintzen goazen ikusi daizun. 2019an, pandemiaren aurretik, 662 emakume artatu genduzan. 2023. urtea 994 kasu gehiagogaz itxi dogu, %50 gehiago. Esnatun %50 kasu gehiago. Beraz, eskari horretara egokitzen goaz, bete behar dogun sistema burokratikoak ahalbidetzen deuskun abiaduran.



Ez dau diputadu honek erabagiten, benetan dinot, ez dot nik erabagiten, Dekretu batek erabagiten dau, zeintzuk diran zuzeneko arretako zerbitzuak, zeintzuk diran ohiko prestazinoako zerbitzuak, Aldundian sartzeko 3 bide, zuzeneko arretea, prozedura arrunta eta preminazko prozedurea, eta 3 bideak Aldundira heldu daitezke, zelan modulutzen diran kontuan hartuta.

Prozedura arrunta?, balorazioa behar dogu zehazki zein baliabide behar doguzan jakiteko. Nik eskatzen deutsut, Gizarte Zerbitzuen Legean lege-esparruak irakurteaz ganera, eta datu ona izango litzatekela irakurtea, erakundeen arteko hirugarren akordioa be irakurtea, eskumen-gomendioei jagokenez argigarria da eta. Euron artean, gainera, lau orrialde dakar balorazino-tresnaren beharraz berba egiteko, lau orrialde erakundeen arteko hirugarren akordioan. Izan be, beharbada, horrek erakusten deusku Euskadi osorako esparru homogeneous egiten gabilzala.

Ziur gagoz zerbitzu egokiak sortzen gabilzala gaur eguneko eskarirako. 1987an, zerbitzuak martxan hasi ziranean, Ariz diputadu sozialistaren eskutik, modu batera hasi zan. 37 urte geroago, beste modu batera jarraitu behar dogu. Uste dot errealidadeetara egokitu behar dogula, eta sistema ekitatiboa, homogeneous eta unibersala sortzen joan, emakumeak ez daitezala diskriminauta sentidu, eta, jakina, ez daitezkan birbiktimizauta sentidu. Horixe egiteko ahaleginetan gabilz.

Besterik ez, denporea joan jat eta. Erantzunean jarraituko dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Laespada. En el turno de respuesta tiene la palabra la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias.

Laespada andrea, ez dabe tresna barri hau pasauko, oraingoz laguntza juridikoa eta laguntza psikologikoa eskatzen dabenei bakarrik, gizarte eta hezkuntza arloko laguntza integrala eskatzen dabenei. Tresna hori pasau beharko dabe, eta ez dira pasauko ostatu-baliabiderik behar ez daben guztiak, une honetan badaukielako.

Begira, Bardintasun Ministerioak zuzendu eban makroinkestak erakusten dau genero-indarkeriaren %70 ezkutauta dagoala, eta datu hori ez dogu ahaztu behar hori guztia eteteko borondatea badago. Eta, alde horretatik, lehenago, lehenengo hitzaldian, labur geratu jat denporea egin gura neban denporen ibilpide honetan. Bizkaian, Tartekari Sareak, 2012tik, ezkutuan egozan 800 emakume bortxatu inguru detektetau ahal izatea ekarri dau. Hau da, bitxia bada be, ikusten da data horretatik, lehen aitatu dodan funtsezko data horretatik, 2022tik, ez dabilzala eragile horreek prestetan, ez dirala birziklatzen, ez dagoala eragile barririk. Esaiguzu, Laespada andrea, 2021etik hona Tartekari gehiago eratzeko argi berdea emon ez izanak euron murrizketeagaz zerikusia daukan. Asko kezkatzen gaitu sare horregaz zer jazoko dan. Asko kezkatzen gaitu, esan dodan moduan, Lurralde honetako indarkeriaren 800 biktima azaleratzeaz arduratu dalako. Eta hemen emakume boluntario horreen alde egin gura dot.

Señora Laespada, nos vende las bondades de esta herramienta, con la esperanza de que suponga un diagnóstico más preciso para proteger a las mujeres que han sufrido violencia, pero el papel lo mantiene todo.

Es evidente que esta herramienta de desprotección puesta en marcha desde el pasado verano por la Diputación Foral es una medida elaborada ad hoc para excluir de la atención especializada a muchas mujeres que sufren violencia machista en nuestro territorio.



Baliabide gehiago bideratu eta ondo funtzionetan dabela erakutsi daben baliabideak indartu beharrean, zuek Bizkaian tratu txarrak jasaten dituen emakumeen galbahea egitea erabagi dozue, Bizkaiko Aldundiak batzuei laguntza espezializauko zerbitzua emongo deustie eta beste batzuei ez. Laespada andrea, tratu txarrak jasaten dituen emakume guztiak zeharkatzen dituana ez da babesik eza, indarkeriak eurengan sortzen dauen eragina baino. Ez daigun egin batzuentzat babesik ez, beste batzuentzat bai. Legeak errespetau gura dituzu, esan dozu lehenengo agerraldian. Bada, gogorarazo gura deustut, Laespada andrea, Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasunerako Euskal Legearen 60. artikulua aginduz, indarkeria matxistea jasaten daben emakume guztiek, babesa daukienez eta babesik barik dagozanek, eskubidea daukiela, eta erakunde honek derrigorra, zerbitzu espezializau integral guzti-guztiak berehala emoteko. Itxidazu esaten tresna horrek, tresna hori instalateak, erakusten dauela Aldundi honek gero eta handiagoa dan eskariari erantzuteko modua modu integralean artatuko dituan emakume bortxatuen kopurua murriztea dala.

Con esta herramienta de desprotección, ¿qué pasará, por ejemplo, señora Laespada, con las mujeres que conviven con sus agresores, que no son dependientes, pero que sufren un dolor en su casa y que han aprendido en aguantes al lado del agresor por resiliencia en su vida cotidiana y por buscar el bienestar de sus hijos?

Pues esa herramienta no les dará desamparo. No, señora Laespada. Pregúnteselo a los técnicos, no se lo dará. Se quedarán en casa sin recibir nuestros servicios. Podría haber citado otros cientos de ejemplos que no lograrán una desprotección muy grande o muy grave después de aplicar ese instrumento con el que ustedes se han dotado. Pregunte, señora Laespada.

Izan be, ozen eta argi esan behar da, tresna horren onura bakarra da tratu txarrak jasaten dabezan emakume guztiak babes-sistematik kanpo itxiko dauzala, zerbitzu espezializaturen bat eskatzerakoan ostatu-baliabideren bat badaukie, hau da, aterpea badaukie. Oraingoz, arreta psikologiko edo juridikoko zerbitzuaz harago. 2022tik egiten zabizien hori guztia ez da berrantolatzea edo berregituratzea, Laespada andrea, desegitea da.

Genero-indarkeriaren biktima diran emakumeen eskaerari, emakumeak laguntza eskatzeko gai dan unean modu arin eta unibersalean erantzuten ez deuston eredu batek emakumeon egoerea okertu baino ez dau egiten.

Tratu txarrak jasaten dabezan andren kategorizazioa lehenesten dauen eredu bat, kompetentzia norena dan argitzeko, arreta arin, diziplinarteko eta espezializaturen aurrean eta hareen erritmoak errespetatuz, indarkerien inguruan egindako jarraibide eta eskuliburu eta azterlan guztien aurka doa. Eta holan, Emakumearen eta Familiaren Zerbitzua andren gizarte-bazterketarako bihurtzen dau arin be arin, eta indarkeria matxistaren biktima diran emakumeak bertan geratzen dira artatu barik. Plan hori goitik behera aldatzea eskatzen dogu, eta hori da, hain zuzen be, gure lurraldean indarkeria jasaten daben emakumeei emoten jaken arretan babesbakotasuna sortzen dauena.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Iardía Olangua. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra la señora Laespada.

La Sra. **LAESPADA MARTINEZ** andreak: Lasaitasunetik, barriro dinot, lasaitasunetik, desegin, kendu, bahetu, moztu, babesbakotasuna. Benetan, ez dakit zer dala-ta



erosten dauen EH Bilduk mezu populista. Benetan dinotsut. Hau da, espero dot batzarkide-talde batek, edo espero neban zuengandik dokumentazino gehiago izatea, gitxienez.

Hona atera gura zenduan hitzaldi bategaz etorri zara, eta bere horretan atera deustazu, esan deustadana ezer entzun barik. Izan be, esan deustadanetik zeozer entzun izan bazeunst, bigarren interpelazinoa zuzendu beharko zenduan ziurrenik. Ilardia andrea, arretamapa, zuzeneko sarbidea, prozedura arrunta, larrialdietako prozedura, non apliketan dan tresna prozedura arruntan. Barriri dinot, beharbada ez deustazu ulertu eta. Agian hobeto entzun behar deustazu, edo nik hobeto azaldu. Agian hobeto azaldu behar dot, e? Agian hobeto azaldu behar dot.

Zertan gabilz ahaleginduten? Prozedura arruntaren bidez doazenentzat arinagoa izatea eta gehiago sartu ahal izatea. Izan be, barriri dinot, zerbitzuan daukagun emakumeen hazkundera oso handia da. Ez berba egin desegiteaz, lehen interbentzinoan azaldu deustadanean Esnatu zerbitzuan arreta %50 handitu dogula. Ezin deustazu berba egin desegiteaz. Esan ahal deustazu gainezka gagozala, bai, baina ez desegiten gabilzanik, eta atea zabaltzen goazela handitzen, aurten 1.000.000 euroko aurrekontu-hazkundera, hain zuzen be, hori konpontzeko doalako. Ez ekarri niri guztiz faltsuak diran gauzak.

Begira, 2016. urtean, 2016ko aurrekontua bilatuko deustut, ez dakidalako buruz, baina esango deustut. 2016an 5.470.000 euro geunkazan indarkeria matxistaren biktimentzat. Azkenean, Estrategia Gaztera erroaten doguzan andra gazteen zerbitzuak kendu doguz; orain, 10.618.000 euro doguz. Ez esan desegiten gabilzanik. Partida ekonomiko sartzen gabilz jarraian, zerbitzuak zabaltzen, egoitzak zabaltzen, behar daben sistema guztia zabaltzen. Ez holakorik esan, egiten dozun gauza bakarra dalako genero-indarkeriaren biktimei gaiztakeria sortzea, ez jakela arretrik emoten pentsauko dabelako. Eta ez da egia. Uste dot ez deutsegula mesederik egiten, diskurtso horrek ez deustelako bape mesederik egiten. Diskurtso horrek ez deutse ezelako mesederik egiten, eurek pentsauko dabena da eskumenak galtzen doazela, ez dakit, ez dakit zelan edo halan esku hartzen dabilzala, ez dakit.

Hara, zure berbaldian, zure interpelazinoan desagerpenari buruz berba egin dozu, eta sortu jatzuna, arreta-zerbitzuaren barruan psikologoen atala desagertzea, hori gertatu eitekean, zerbitzua desegiten gengoalako. Zuri, batzarkideei eta herritarrei bermatu gura deustuet psikologiako esku-hartze taldeak bere horretan jarraitzen dauela, Esnatu zerbitzuan egiten dalako, ez Aldundiko zerbitzuan. Izan be, Aldundiaren zerbitzuaren barruan daukaguzan psikologoen ez daukie psikologo klinikoak izateko plaza gaituta. Eta hori ez dot nik asmau, 2011ko Osasun Publikoaren Legeak ezartzen dauenez, psikologia klinikoko eskumenak horretarako prestatutako pertsonak eroran behar dabez. Beraz, desegiten gabilz, ezer bez, hazten goaz, trukatu egin dogu, trukatu egin gura dogu, oindino ez dogu espedientea inkubau, plazak trukatu gura doguz, daukaguzan 3 psikologo-plazakaitik trukatuko diran gizarte-langileentzako 3 plaza, eta psikologo bat itxi gura dogu zerbitzuetan.

Zer lortuko dogu horregaz? Oso gauza erraza, askoz be gizarte-langile gehiago izatea, emakumeei prozesuetan laguntzeko. Eta arreta psikologikoa, non dagoan, hitzartutako zerbitzuetan, behar dogunaren arabera hazten edo murrizten diralako. Uste dot argia izan behar dala, nasaitasuna euki behar dala, jakin behar dala... eta, gainera, ulertzen dot psikologoen mina, badakidalako babes bila joan dirala batzar-taldeetan. Mina ulertzen dot, zelan ez dot ulertuko? Ni be, bere garaian, aurreko lanean lan-aldaketaren biktima izan nintzan. Nik badakit zer esan gura dauen norberak lana aldatzeak eta zer esan gura dauen pausua aldatzeak, ez dot jakingo ba? Baina gura dodana da biktimen alde egitea, hain zuzen be emakumeek ahalik eta arretarik onena euki daien, eta gizarte-langileak behar dodaz, emakume langile konprometidua behar dodaz, balorazino-tresnak egingo dabezanak eta balorazino-tresna horrek diagnostiketako aukera emon deiskula.



Zer egiten dau balorazino-tresnak, danak babesik barik itxi? Ez, gure asmoa zerbitzuak berrantolatzea dalako, babesbakotasunik ez daukienean, udalek beste baliabide batzuei erantzun deien. Barrero dinot, 2.500 andrari emoten deutsegu arreta urtean, gitxi gorabehera, zuzeneko zerbitzuaren bidez. Gura dozun moduan jarri zeintekoz, gura dozuna antzestu zeinke. Ez da egia. Falazia batetik, egia ez dan eskandalu bat ezartzen zabizie, eta horrek ondorioak daukaz. Hori dinot, ondorio politikoak be badituala uste dodalako. Nire eskua luzatuta dozu zerbitzua azaltzeko. Milioi bat bider esan deusut, zerbitzua azaltzeko, jesartzeko, batzuetan bitartekaritzak laburrak izaten diralako, zerbitzua azaltzeko, zuk zure eretxia emoteko, batera eregi daigun. Nire eskua luzatuta daukazu, beti badakizu. Bulegoko atea beti dago zabalik zuri entzuteko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Laespada. 4 punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación

[\(R.E.12/E/2024/0000369\)](#)

**Autor:** Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo (GPV/BTP)

**Asunto:** El futuro de la Línea 4 de Metro Bilbao.

**Documento Principal:**

[\(R.E.12/E/2024/0000369\)](#)

**Expediente:** [\(12/B/18/0000833\)](#)

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna

[\(12/E/2024/0000369SE\)](#)

**Egilea:** Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo (GPV/BTP)

**Gaia:** Metro Bilbaoren 4. linearen etorkizuna

**Dokumentu Nagusia:** [\(12/E/2024/0000369SE\)](#)

**Espedientea:** [\(12/B/18/0000833\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCIA-TEJEDOR** jaunak: Muchas gracias señora Presidenta. Buenos días. Egun on guztioi.

Gaur, bape barria ez dan gai bat ekarri dogu Ganbera honetara. Baina egia da Foru Aldundi honek guztiz ahaztuta daukala, hau da, Metro Bilbaoren 4. linearen proiektua, gure lurralderako funtsezko proiektua eta, batez be, urte askoan konprometidutakoa. Uste dot ez dala beharrezkoa zehetasunetan sartzea eta proiektu honen aurrekari historiko osoetan sartzea, zoritxarrez, bere historia luzeegia dalako.

Errekaldeko Metroa errebindikazino historikoa da, alderdietako herritarren aldarrikapena, geroago, gaur egun Metro Bilbaoren 4. linea izenaz ezagutzen dogun mobikortasunerako azpiegitura-proiektuan eratu zana. Errebindikazino hori 2003. urteaz geroztik dago mahai gainean, Errekaldeko herritarrek aldarrikatzen eben urteaz geroztik, eta gure alderdiak hartu eban proposamena izan zan. Harrezkero, Errekalden eta Iralan, Bilboko hegoaldeko auzoetan, Metroa egiteko beharra azpimarratu izan da, 40.000 bizilagun bizi dira



bertan. Eta azpiegitura hori aldarrikatu da Bilboko udalerriaren elementu egituratzaile eta kohesinorako elementu gisa.

Aldarrikapen horreetatik 2008ra arte, orain 16 urte, laster esaten da, Eusko Jaurlaritzak gaur egun 4. linea izenaz ezagutzen dogunaren lehenengo proiektua iragarri eban. Proiektu horren historia iragarkien, promesen eta promesa gehiagoren historia da. Horretan, jakina, Foru Aldundiko jaun-andreak, oso onak zarie. Zuek onak zarie promesak egiten, baina gero ez daukazue eragozpenik promesak ez beteteko. Baina ez zaire hain ondak, itxidazue esaten, herritarrei ziurtasunak emoten. Danok dakizueenez, era guztietako datak jarri dira azken urteotan, bai gaur egun Metro Bilbaoko 4. linearen proiektuan dagozan obrak hasteko, bai obrak inauguratuko eta amaitzeko. Baina, egia esan, gagozan moduan gagoz, behin betiko proiekturik barik, obrak noiz hasiko diran eta, are gitxiago, 4. linea martxan jarriko dan ziurtasunik barik. Horixe da benetako egoera. Eta hori da benetako eszenatokia, erakunde guztietan, Batzar Nagusiotan, Eusko Legebiltzarrean, Bilboko Udalean, hainbeste aldiz eta hainbeste urtetan, zuei, Foru Aldundiko jaun-andreoi eta Eusko Jaurlaritzari, hain zuzen be, eskatzen geuntsuenean benetako pausuak emoteko proiektua, Metro Bilbaoren 4. linea, martxan jarteko orduan. Baina kontua da, gaur egun, ez dagoala horri buruzko aurrekontu-zuzkidurarik be, zuzenketen bidez halan eskatu dogun arren.

Urteotan guztietan, informazino-azterlan bat baino gehiago egin dozue, eta hainbat geldialdi egin dozuez proiektuan. Eta katean jarraitzen dogula emoten dau. Une honetan, eregiteko proiektuaren idazketa amaitu barik dago. Euskal Trenbide Sareak 2023ko martian esleitu eutsan proiektua Fulcrumi, 15 hilebeterako, eta eregiteko proiektua 2024ko irailean amaituta egon beharko litzateke. Baina, egia esan, une honetan be, eraikuntza-proiektua amaitzen dan unean, daukagun unean, kontua da inplikautako administrazioen artean, zuek eta Lakuako Gobernuak, hain zuzen be, ez dozuela hitzarmenik edo konpromiso ekonomikorik be. Eta, esan deusuedan moduan, ez dozue aurrekontu-partidarik esleitu 4. linea martxan jarteko. Baina, egia esan, zuek, Bizkaia Denontzat programan daukazuen aginte-planean, 4. linea bultzatuko dozuen proiektua dala adierazo dozue.

Nik galdetzen deusut, Etxanobe andrea, Bizkaiko Ahaldu Nagusia zaran aldetik eta, Bizkaiko Garraio Partzuergoko lehendakaria zaran, agintaldi honetan Bizkaia Denontzat planean hitzemandakoa beteko ete dozuen. Eta galdetzen deusut, izan be, dakizue, kezagarria da, Eusko Jaurlaritzak 4. lineako obren hasiereari buruz adierazo dauena. 2023ko jorrailean, Arriola jaunak, bere arloan Garraio daukan sailburuak, 4. lineako obren hasiera atzeratu egingo zala adierazo eban, Abiadura Handiko Trenaren Abandoko geltokia martxan jarri arte. Nahiago neuke oker banengo, eta zuek atzera egingo bazendue, baina aurrekariak eta holako proiektuetan zuekaz izandako atzerapenak zein ohikoak diran jakinda, ez dakit 2040, 2045, 2050az berba egiten egon gaitkezan. Izan be, une honetan, Eusko Jaurlaritzaren beraren arabera, abiadura handiko trenaren Basauriko behin-behineko geralekua 2027an egongo da martxan, eta AHTren Abandoko geltokia ez da prest egongo, ez da martxan egongo 2033 baino lehen. Proiektu horretan, bide batez esanda, zuek be ez dozue aktiboki parte hartu gura.

Iragarritako atzerapenari jagokonez, galdetu gura deusut, Etxanobe andrea, ba ete daukazuen erespideren bat horri buruz, Eusko Jaurlaritzagaz bat ete zatozen 4. lineako lanen hasierea geldiarazoteko, AHTren Abandoko geltokia martxan egon arte. Era berean, galdetzen deusut ea Bizkaiko Foru Aldundiak proiektu honen atzerapenak geldiarazoteko ezer egingo dauen, eta esan egia ete dan 4. lineako obren hasiera-data AHTren Abandoko geltokia edegitzearen baldintzapean egongo dala. Zorretan zagoze, batez be 4. linearen eraginpeko auzokideakaz, Errekaldeko bizilagunakaz, Iralako bizilagunakaz, Betolaza, Peñascal, Iturrigorri, Kobetamendiko bizilagunakaz, baita Basurtu eta Zorrotza edo Alonsotegikoakaz be, 4. linea igaroko dan lekuetakoakaz. Baina, azken baten, zuek zorretan zagoze Eusko Jaurlaritzek eta Foru Aldundi honek 15 urte baino gehiagoan agintzen zabizien mobikortasun-azpiegitura hori



merezi daben bizkaitar guztiakaz. Baina, azken baten, bizkaitarrek euren konpromisoak beteko dituan eta egia esango deutesen Foru Gobernu merezi dabe.

Etxanobe andrea, uste dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik egin dozunena ez dala serioa. Batzuek dinoenez, azken aldian modan jarri da Urkullu Lehendakariari, Lakuari, erru guztiak botete, baina, egia esan, aurrekariak ikusita, Ganbera honetan Metro Bilbaoren 4. linearen proiektua eztabaidatu zan azken aldian, Rementeria jaunak gauza bera egin eban, proiektu horretan izandako atzerapenen errua Lakuako Gobernuari bota eutsan. Etxanobe andrea, espero dot ez dozuela 4. Lineako lanen hasierea atzeratuko Abiadura Handiko Trenaren Abandoko geltokia amaitu arte, uste dodalako Bizkaiko Foru Aldundi moduan daukazuen sinisgarritasuna jokoan dagoala. Baina, beste alde batetik, esaten deusut, zure asmoa beste bat bada, zure asmoa Eusko Jaurlaritzak adierazo deuskuna bada, eskatzen deusudana da Ganbera honen aurrean egia esateko, bizkaitarrei berba egiteko, heldu moduan tratetako, ez dogulako merezi 4. Linearen proiektuak azken 20 urteotan ekarri dauen zorabio etenbakoa.

Etxanobe andrea, badakizu Bilboko metroaren 4. linea martxan jarrea sine die luzatzen jarraitzen badozu Batzar Nagusion agindua ez dozula beteten, Eusko Legebiltzarraren aginduak ez dozuzala beteten, Bilboko Udalak eskatu deusuzan akordioak eta aldiak ez dozuzala beteten, baina, era berean, zure programara be ez dozu beteten, Bizkaia Denontzat gobernu-programea. Erakundeek, eskudunek zein Bilboko Udalak, esan deusudanez, behin eta barriro eskatu deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, 4. lineako proiektuan benetako pausuak emon daizan. Guk adostutakoa beteteko eskatzen deusugu, bizkaitarrei ziurtasuna emoteko. Defendidu dagizuzala bizkaitarrak, defendidu dagizula Bizkaiarentzat hain garrantzitsua dan proiektu hau, desbardinak hainbeste aldiz ados jarri gaituana siglen gainetik, eta baita Eusko Jaurlaritzaren asmoaren gainetik be.

Eta mesedez eskatzen deusugu, eta eskatzen deusugu irmo jokatzeko, azken baten, Bizkairako hain beharrezkoa dan proiektu bat bultzatzeko, Metro Bilbaoren 4. linea, hain zuzen be. Uste dogu interpelazino horregaz bizkaitarren aurrean argi jokatzeko aukerea daukazula. Batez be, ez dabelako merezi azken urteotan jasan dabena.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez Guadalupe García-Tejedor. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra la señora Diputada General.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Gracias señora Presidenta, y buenos días.

Gracias, señor Gómez-Guadalupe, en primer lugar por adelantar y presentar esta interpelación,. En su pregunta se pregunta si la Diputación Foral de Bizkaia va a realizar alguna acción para paralizar los retrasos de la línea 4 de Metro Bilbao.

Interpelazinoan galdetu dozu ea Bizkaiko Foru Aldundiak jarduketarik egingo dauen Metro Bilbaoren 4. linearen proiektuaren atzerapenak geldiarazoteko. Gómez Guadalupe jauna, ziur nago badakizula, zure lehenengo esku-hartzean holan adierazo dozulako, ondo dakizu azpiegitura hau garatzeko erakunde eskuduna Eusko Jaurlaritza dala, eta badakizu, zure lehenengo esku-hartzean be esan dozunez, 2023ko martiaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, kasu honetan Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoaren bitartez, “Bilboko metropoli-trenbidearen 4. linearen eta hegoaldearen eraikuntza-proiektua idazteko” kontratua esleitu ebala.



Eraikuntza-proiektua idazteko, kontratu hau gauzatzeko epea 15 hilebetekoa da. Eta epe hori 2023ko jorrailaren 11n hasi zan. Gaur, zezeilak 28, ingeniari-tza esleipendunak eraikuntza-proiektua idazteko daukazan 15 hilebeteetatik 11 be ez dira igaro. Guk proiektu hori, eraikuntza-proiektu hori daukagunean, itaunean egiten dozun beste galderea argitu ahal izango dogu, obren hasiera-data Abiadura Handiko Trenaren Abandoko geltokia edegiteak baldintzatuko ete dauen eta beste galderak. Bien bitartean, argi euki behar dozu Foru Gobernu honek Bizkaia Denontzat gure aginte-planean hartu dogun konpromisoa bultzatzen jarraituko dauela, zehazki, 5.14 jarduketan, Eusko Jaurlaritzagaz batera Galdakaora eta Basaurira doan metroaren 5. linea eregiteko finantzaketan, Galdakao-Usansoloko ospitalerako konexinoa erraztuz, Durangaldea, Busturialdea eta Arratia eskualdeakaz. Era berean, metroaren 4. linearen garapena bultzatuko da, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan.

Halanda ze, Eusko Jaurlaritzak martxan dauka jarduketa bat, eta Aldundiak konpromisoa dauka Metroaren 4. linea bultzatzeko Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan jarduteko. Aldundi honek konpromiso sendoa dauka kalidadezko garraio publikoagaz. Garraio publikoko sistema bat, kasu honetan Metroa eta Bizkaibus buru dituana, aurrera egiten lagunduko deuskuna, gizarte kohesinonatuagoa, udalerrien eta eskualdeen arteko lotura hobegoduna eta berdeagoa izan daiten. Persona gehiago modu jasangarriagoan mobiduten diran lurraldea. Eta horixe da Foru Gobernu honen konpromisoa, ez izan zalantzarik. Eta konpromiso horretan islatzen da, baita be, Metroaren 4. linearen bultzadea, baita garraio publikoa hobetzeko beste jarduera asko be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ahaldun Nagusi andrea, egia esango deusut. Nire bigarren txandan nator hona, eta gaur goizean Gernikako Batzarretxe honetara heldu nazen moduan nago. Zure borondate politikoaz berba egin dozu, zuk autortu dozu, bagenkian zuek Bizkaia Denontzat erakundeko aginte-planean sartu dozuena, Eusko Jaurlaritzaren eskumena dala, eta une honetan Eusko Jaurlaritzak Euskal Trenbide Sarearen bitartez esleitu eban behin betiko eraikuntza-proiektua izateko zain gagozala.

Baina interpelazino hori, Batzarretako Talde Popularrak mahai gainean jarri deusugun itaun hori, harago doala badakizu. Izan be, interpelazinoan bertan esan deusugunez, eta nire lehenengo agerraldian esan dodanez, Eusko Jaurlaritzak berak jarri dau 2023an Bilboko 4. lineari hasierea emoteko data, Eusko Jaurlaritzak, Arriola jaunak, zure alderdia parte dan Jaurlaritzak, Etxanobe andreak, adierazo dau ez dituala Metro Bilbaoko obrak hasi gura AHTren Abandoko geltokia amaitu arte. Eta iruditzen jat aurrera bolea egiten zabilzala, herritarrentzat benetan garrantzitsuak diran eta proiektu honetarako benetan garrantzitsuak diran gai guztiak atzeratzen, kasurako lehenengo hitzaldian eskatu deusudazan datu ziurrak, datak, alegia. Nire ustez bizkaitarrek, hainbeste urtetan Iralatik Errekaldera Metroz joateko mobikortasun-azpiegiturea eukiko ebela agindu deutsezuen bizilagunek, ziurtasuna merezi dabe. Benetako datak merezi ditue, eta bestela, esan deusudan moduan, Etxanobe andrea, bestela, egia esan daizun, hona etorri zaitezcan eta esan deiguzun ados zagozala Eusko Jaurlaritzaren erispideagaz, hau da, proiektu hau ez hastea AHTren Abandoko geltokia martxan egon arte.





Etorri nazen lez ateratzen naz. Ez dakit ados zagozan ala ez Arriola Garraio sailburuaren erispideagaz. Baina, egia esan, harritu egiten nau eta, bien bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak, kamara guztiek eskatu deusien konpromiso politikotik harago, ez daukagu ez Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenik, ez igazko urte amaieran onartu ziran 2024ko Aurrekontuetan 4. lineako proiektura zuzendutako aurrekontu-partidarik, ez eta proiektu honi datak emongo deusazan eta ziurtatuko dauen benetako konpromisorik be. Uste dot baloia kanpora botaten zabilzala, eta, barriro be, zuen betiko trukoak, proiektu jakin batzuen ganeko erantzukizuna onartu gura ez dozuenean, Eusko Jaurlaritzari botaten deusezueza baloia. “Ez, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da”. Hau da, ez dakit gustura geratu zaren, baina klasiko bat da tamaina horretako proiektu bati buruzko erantzunak emon gura ez dozuezan. Jakina, bai, baina badakizu Metroaren linea guztietan Eusko Jaurlaritzek oraingo beste baldintzatuta egon dala exekuzioa, zuekaz batera kofinantzatzailea dalako. Izan be, %50ean finantzau dabe orain arte be.

Etxanobe andrea, bigarren esku-hartze honetan eskatzen deusut esan deiguzula, ados zagoz Eusko Jaurlaritzak adierazitako erispideagaz, hau da, Metro Bilbaoren 4. lineako obrak ez hasteagaz Abandoko Abiadura Handiko Trenaren geltokia martxan egon arte? Edo ez zagoz ados.

Barriro dinotzut, Bizkaiaren eta bizkaitarren interesak defendiduteko eskatzen deusugu, eta ez eizu baldintzatu Bilboko Metroaren 4. lineako lanen hasiera Eusko Jaurlaritzek ezarri dauen mugarriagaz.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor. En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora Diputada General, en representación de la Diputación.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias señora Presidenta.

Señor Gómez-Guadalupe, dijo que es un proyecto clave para su partido impulsar esta línea 4. No tenga duda de que es un proyecto clave también para este Gobierno. Precisamente, y de hecho, todos los grandes y pequeños proyectos recogidos en nuestro programa de Gobierno, todas las acciones son vitales para nosotros. Y ese es el compromiso que hemos adquirido con los ciudadanos y ciudadanas de Bizkaia, ese es el contrato que hemos contraído, que hemos firmado con la ciudadanía, por la confianza que nos han dado. El contrato, como saben, es por 4 años y, como se dice, el camino se muestra al andar.

Por lo tanto, yo te pido confianza y también pido confianza a la ciudadanía vizcaína. Yo he mencionado, en la primera intervención le he dicho, que hay un hecho en marcha, hay una licitación en marcha por parte del Gobierno y que cuando nosotros tengamos ese proyecto lo vamos a acometer. Y no tenga ninguna duda de que así será.

Esan deusut, oraintxe esan deusut, Gómez Guadalupe jauna, Aldundiak konpromisoa daukala Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan metroaren 4. linea bultzatzeko. Ez da baloia kanpora botatea; izan be, Eusko Jaurlaritzak da erakunde eskuduna, baina guk, kalidadezko garraio publikoan sinesten dogulako eta, sortu zanetik, beti lagundu dogulako, eta guretzat Metroa elementu garrantzitsua dalako, beti lagundu dogu eta lagunduko dogu. Holan egin dogu iraganean, eta holan jarraituko dogu etorkizunean be, barriro dinot, eraikuntza-proiektuak aurrera egin ahala, zuk eskatzen dozun 4. linea horren aurreko guztietan egin dogun moduan.



Lehenengo mintzaldian aitatu dozu, eta bigarreanean be, atzerapena, atzerapena. Eta gaitzespen horren aurrean, nik bakarrik esan neizu martxan gagozala, zuk esan dozun moduan, 2023. urtetik proiektu bat lizitatuta dago, eta proiektua gauzatzeko epea lau hilabete barru amaitzen da. Aztertu daigun proiektua, izan gaitezana serioak, zuek be bai, gu be bai, izan gaitezana serioak. Proiektua daukagunean, jagokozan erabagi guztiak hartuko ditugu. Nik ezin deutsut aurreratu oraindik ezagutzen ez dogun horren gaineko jarrera. Ez daukagu eraikuntza-proiektua.

Atzerapenak aitatu dozuz, eta nik esan gura deutsut, eta zuk be uste dot horri aitamena egin deusazula, 2019tik, guk proiektuaren hainbat fase eta mugarri garatu izan ditugu, eta mugarri garrantzitsu horreei esker, une honetan gagozaen unera heldu ahal izan gara, hau da, aukera desberdinei buruzko informazio-azterketara. Herritarrek parte hartzeko prozedura bat be egin da, informazio publikorako prozedura bat, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren izapidetzea. Eta nahitaezko urrats horreek guztiak egin ondoren, une honetan, 4. linea eraikuntza-proiektua idazteko fasean dago.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Etxanobe Landajueta. Punto 5 del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.12/E/2024/0000100](#))

**Autor:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Asunto:** La situación de la carretera BI-3746 (Trápaga).

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2024/0000100](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (16A)

**Expediente:** ([12/B/25/0000715](#))

5.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea: **Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([12/E/2024/0000100SE](#))

**Egilea:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Gaia:** BI-3746 errepidearen egoera (Trapagaran).

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000100SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (16A)

**Espedientea:** ([12/B/25/0000715](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora González Díez-Andino, tiene usted la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Egun on guztioi. Eskerrik asko mahaiburu andrea.

Gobernu-talde honen puntu azpimarragarrietako bat lurralde-koehesinoaz orokorrean berba egitea da beti, baina, gero, jarraibide horri zuzenean eragiten deusien kasu bereziak dagoz etxe honen bultzadea behar dabenak, eta bultzada hori ez da heltzen. Aldundi honek jakingo dauenez, Trapagarango BI-3746 errepidea orain dala urte bi baino gehiago hasi zan barriztetan. Halan be, inork zergaitik ez dakiala, obra horreek gelditu egin ziran eta, ondorioz, milaka erabiltzailek kalte larriak jasaten dabez egunero. Dagoan moduan dagoala,



Sestao eta Trapagaran lako udalerrien arteko lotura-errepidea da, Trapagaraneko IATrako sarbidekoa, eta ehundaka enpresa, horreen artean, Productos Tubulares edo Amazon, bertatik gertuen dagozanak eta bertatik igaroten dana aitatzearren, eta geldiarazotako obra horreek Bizkaibuseko linea biri kalte egiten deusenez eta itzulinguru garrantzitsua egin behar dabenez, honako galdera honi erantzutea eskatzen dogu:

Zer neurri hartuko ditu Foru Aldundiak, eta, batez be, Azpiegituretako Departamentuak, obra horreek ahalik eta arinen bukatzeko?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora González Diez-Andino. En el turno de respuesta, tiene la palabra el representante de la Diputación, señor Pradales Gil.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Señora Presidenta, junteros y junteras, buenos días.

Aitatutako 3746 errepidea, 10+560 eta 11+500 kilometro-puntuen artean, udal-titulartasunekoa da. Trapagarango Udalaren titulartasunekoa da 2018ko zemendiaren 14tik, hau da, errepide horren eskumen eta kudeaketa eskusiboa Trapagarango Udalarena da. Productos Tubulares enpresaren eta Trapagaraneko IATaren biribilunearen arteko tartea mozteak ez dau inolako eraginik Errepideen Foru Sarearen funtzionalidadean. Behar besteko bideragarritasuna daukan uri-eremua da, eta, gure ustez, sare saretuaren bidez arazorik barik iristeko aukera emoten dau, errepide hori ezeze, BI-744, BI-3745, BI-3746 eta BI-3747 errepideek osotzen daben sarera. Izan be, Foru Aldundi honetan ez da ezelango kezarik jaso, eta ez da trafiko-arazorik igarri Foru Sarean.

Barriro dinot, udal-eskumeneko errepidea eta errepide-zatia da 2018tik. Ez dago eragin funtzionalik Errepideen Foru Sarean, eta, beraz, Aldundi gisa ez daukagu legitimaziorik galderan proponiduten zan zentzunean jarduteko. Izan be, foru-eskumenen larregikeria ekarriko leuke, udal-izaerako eskumenetan sartuta.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pradales Gil. En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora González Diez-Andino.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Pradales jauna, esan dozu errepidea Trapagaranena dala eta haren eskumena dala, egia da. Sestaoko eta Trapagako herritarrak dira kaltetuenak, eta udal horreen eskumenekoak dira, baina baita Aldundiarenak be, ezta? Hori be egia da. Egia da, era berean, udalek ezin deutseela beti bakarrik aurre egin bizilagunek behar dabezan obra, erreforma edo zerbitzuei. Eta Aldundia izan behar dala hor dagoan erakundea babesa emoteko, bai zuzenduz, orientatuz edo ekarpenak eginaz, etab. Hori be egia da.

Beraz, errepidea forala ez izateari eustea sinpleegia da etxe honengandik bizilagunek espero dabenerako. Errepidea ez da da forala, eta barriz jesartzea hori da esatea ez da nire arazoa. Eta ezin da Aldundiaren erantzuna izan. Eta asko kezkatzen nau zuk erantzun hori emoteak, edozein diputaduren kasuan ardurea hartuko neuke, baina, batez be, aurrean daukazun etorkizunagaz. Pertsonen ardurarik hartu gura ez badozu, gitxienez, arduratu zaitetz Bizkaibusean lineaz. Linea biri eragiten deusie, arduratu zaitetz egunero egiten dabezan kilometro gehigarriakaitik, kontsumiduten daben gasolina gehigarriagaitik daukan prezioagaz



ganera, autobusek eta auto partikularrek egin behar daben itzulinguruagaitik sortzen daben kutsadura-plusagaitik. Eta ez dogu ahaztu behar guztiok kezkatu behar garela errepide hori behar daben herritarrek ze denpora galtzen daben. Bide batez, itzulingurua ezagutzen ez badozu, oso adi egon behar dozu TomTomagaz, ez galtzeko.

Orain dala segundo batzuk Ahaldun Nagusiari entzun deusagu esaten personak gehiago mobiduten dirala, mobiduko dirala modu jasangarriagoan, hori da gure erispeidea, esan dozu. BI-3746 errepidea behar ez daben personak izango dira Aldundiaren laguntzea izango dabenak modu jasangarriagoan mobiduteko. Era berean, Ahaldun Nagusiak berak adierazo dauenez, "Kalidadeko garraio publikoan sinisten dogu", baina, gero, Bizkaibuseko linea bi daukaguz urte bian...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Parkatu González andrea, denporea geratu egingo dot. Parkatu, mesedez galderako gaira lotzeko eskatu behar deusut. Mesedez. Eskerrik asko.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: (...) Bizkaibuseko garraioa, izan be...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es, ez, ez, ez, ez. Danok dakigu ze galdera egin dozun, eta argi dago ez daukala zerikusirik...

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Baina Pradales jaunari erraztu egin gura neutsa, ez ebalako personei buruz berba egin gura. Ederto, eskerrik asko.

Sentiduten dot, zure taldeak Trapagako eta Sestaoko auzotar horreez eta errepide hori erabili gura daben bizkaitar guztiez arduratzera behartzen zaitu. Danok dakigu errepide hori ez dala foru-titulartasunekoa, baina danok dakigu, baita be, udal bat trabatuta dagoanean eta obra batzuk amaitu barik dagozanean, eta ez danean horretarako gai eta daborduko urte bi baino gehiago pasau diranean, uste dot hor egon gaitkezala laguntzeko, laguntzeko eta bideratzeko, arazoa zein dan eta konpontzeko zer ekarpen egin geinken ikusteko. Errepide hori ez da Aldundiarena eta ez da nire arazoa ez dan beste zeozer.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora González Díez Andino. En el turno de respuesta, tiene la palabra en nombre de la Diputación, el señor Pradales Gil.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Muchas gracias.

Esaten zabilz hankapera botateko udal-autonomia. Gauza bat da udal bategaz lankidetzan jardutea, beste bat udal-autonomia ez errespetetea eta Aldundiak bere eskumenetatik gora jokatzeara. Ez dot uste hori egin behar danik.

Uste dot nobela bat egin dozula, errealdadeagaz bat ez datorren istorio bat kontau deuskuzula, ze ez dago auzokoen kexarik, ez herritarren kexarik. Benetan, González andrea, ez dago. Izan be, guk Trapagarango Udalagaz lankidetzan jardun dogu eskatu deuskunean, eta horretan jarraituko dogu, Aldundi honek Bizkaiko udalerriaz kolaboretan dauelako, ez izan ezelako zalantzarik. Uste dot gaur okerreko solaskidea aukeratu dozula, uste



dot titular baten bila ibili zarala edozein preziotan eta nigaz. Sentiduten dot, udal-autonomia errespetetan dogu, eta, gainera, herritarren eskaerei erantzuten deutsegu.

Y hoy, si tengo la oportunidad, ¿sí?, señora presidenta, me gustaría compartir con ustedes al menos un último saludo.

Ha sido un honor trabajar por Bizkaia en estos 12 largos años, y tener la oportunidad de construir una Euskadi mejor.

Gracias a todas las personas que confiaron y confían en mí. A los Diputados Generales José Luis Bilbao, Unai Rementeria, Elixabete Etxanobe, al partido PNV, a los que han sido mis compañeros, y a los que todavía lo son y a todos los junteros. Gracias, de verdad.

He intentado construir una Bizkaia mejor desde el primer día. Y espero de corazón dejar un territorio mejor. Ese ha sido siempre mi principal y único lema.

En estos 12 largos años, he tenido contacto con todos los partidos políticos, ya lo saben. Y siempre he querido ser respetuoso con todos. Si alguna vez no lo he sido, pido disculpas.

Por encima de las diferencias políticas, hemos trabajado y conseguido consensos en muchos momentos en estas Juntas Generales. Con todos los colores políticos, además. Gracias, pues, por la generosidad mostrada para llegar a acuerdos. En mi humilde opinión, ese es el camino más adecuado para construir y desarrollar un País.

Vivimos en un mundo complejo. Días de guerras, incertidumbres y crisis... Pero yo creo que las Juntas Generales de Gernika representan lo contrario ante el gran mundo: libertad, democracia, convivencia, justicia y paz. Defendamos estos valores aquí, en Euskadi y en el mundo, será en beneficio de todos.

Baimena emoten badeustazue, esango deutsuet, jagon Ganbera hau eta Gernikako Batzarretxea, euskal askatasunen sinboloa eta euskal herriaren balio nobleen, balio unibersalen sorlekua. Etorkezuna horretan joaku.

De todo corazón, muchas gracias a todos y todas, y hasta pronto!

Muchas gracias, de verdad.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pradales Gil. Muchas gracias, Imanol, por tu trabajo, por tu compromiso, y por tu aportación para construir una Bizkaia mejor entre todos. Y muchas gracias en especial, y hoy así lo has reconocido, por el respeto que has demostrado siempre con estas Juntas Generales y este Parlamento. Y gracias por facilitarme el trabajo. Todos sabemos que eres un gran orador, y eso se agradece. Te deseo el mayor de los éxitos en tu nueva andadura. Muchas gracias.

Punto 6 del orden del día:

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

6.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:



**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno  
([R.E.12/E/2024/0000329](#))

**Autor:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Asunto:** Subvenciones a municipios para la actividad forestal.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2024/0000329](#))

**Expediente:** ([12/B/25/0000814](#))

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea  
Osokoan ([12/E/2024/0000329SE](#))

**Egilea:** Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

**Gaia:** Udalei basogintza diru-laguntzak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000329SE](#))

**Espedientea:** ([12/B/25/0000814](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias señora Presidenta. Buenos días.

El mapa forestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco nos muestra que el bosque autóctono en Bizkaia es de 31.000 hectáreas de superficie y que las plantaciones forestales son de 101.000 hectáreas, de ahí 23.000 hectáreas son de eucalipto y 73.000 de coníferas.

En las subvenciones forestales de este año han eliminado las subvenciones a los ayuntamientos para la compra de tierras forestales y para la realización de plantaciones, y lo que queremos saber es la razón, por qué lo han hecho, y si van a abrir alguna otra subvención específica para ello. De hecho, son muchos los ayuntamientos que están perfilando otra gestión forestal, que cuida el territorio, que cuida el agua, que genera madera de calidad, y no entendemos la razón. Por qué no se va a subvencionar esto por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por tanto, esa es la pregunta, cuál es la razón? Este año habrá subvenciones, otra línea para los municipios?

